

BEAR DIRAN BAIMENAKAZ

Nihil obstat:

DR. ANTONIUS ZALDUA URIARTE
Censor eccus.

Imprimatur:

† PABLO, Obispo de Bilbao
Bilbao, 3 diciembre 1964

Registro núm. 7.566 — 1964
Dep. legal: BI 2.173 — 1964

GRAFICAS BILBAO — BILBAO

UDAZKENA

Zuzendari: Aita Onaindia - Larrea (Zornotza)
Banatzaille- X. P. Albizu - Bilbao

Garilla - Lotazilla 1964 III - IV

IRU OLERKARI: AGIRRE, AZKUE

TA UNAMUNO

(1864-1964)

Giza-oiñarnari edozein gaitan zabal ta sakon eragin dautsoenak, beti doguz txalogarri. Nimiño artean, bulartsu ta erraldoi antzera agertzen yakuz oneik. Erri guztiak lez guk euskaldunok be badiugu olako gizaki eragilleak.

Ain zuzen, aurten iru gizon andiren izenak aize tan darabilguz eguneroko ta aldizkarietan. Txomin Agirre, Berbizkunde Azkue ta Mikel Unamuno urte batekoak genduzan; aurten ospatzen dogu euren jaiotzatiko eungarren urte-burua. Bizkaia'k ez ditu iñoiz be aztuko bere iru seme jator oneik.

Irurak ziran andi, bakotxa bere arloan; Agirre ta Azkue euskal saillean, Unamuno erdel-zelaietan. Euskal-sailleko biak, jakitun ta luma zorrotz, bata irakurgaiak idazten eta bestea itz-azterketan eta kantu zarrak aizatzen oraindik inok ez dauz garaitu; Unamuno, idazle, ta jakinzale lez, mundu osoan ezaguna. Agirre gazterik il zan, 56 urte eba-zala; Azkue, zarmuga ederrean, 87 urtegez, eta Unamuno zartzaroan sartuta, 72 urte egiñik.

Orrezaz gainera, irurak genduzan olerkari, olerzale, ederra izaditik jaso naiz biotz-barruan sortzen ekienak. Olerkia, izan be, sua ta txinparta da, eta irurak erabillezan sua ta garra biotz-ataketan dantzari. Azter daiguzan zerbait iruren bizitz eta oler-lanak.

I

TXOMIN AGIRRE

Agirre oso ezaguna da. Ondarru-n jaio zan, 1864'ko maiatzaren 4'an. Ango bizitza, arrantzale mutikoen bizitza egin eban umetan. Ikastola ta aitarren aroztegia ziran bere gaztetako lantegi. Baiña goiz baten, bere erriko eleiz ixillean otoitzari ekiola, zerutar dei gozoa nabaitu eban biotzaren erdirer-dian. Eleizarako dei goitarra zan. Zelan atondu or-tarako bideak? Ezkurra bear nai ta ez. Eta bere aita ezeukia zan, arotzietatik bizi zana, jan eta jazteko aiña ozta-ozta irabazten ebana. Jaungoikoak, alan be, eztau Berak aukeratutakorik bertanbera izten. Bilbao'ko Santiago eleiz nagusiko parroku zan Ma-riano J. Ibarquengoitia jaunak bere etxera eroan eban, mezea lagundu ta gainerako arazoetan berari lagundu egion. Jaun onek ordaindu eutson gero latin eta beste eleiz-ikaskizunak egiteko bear eban

Agirre; baita Gazteiz'ko Apaiz-Ikastetxe nagusian Urtziztu (Teologi) ta abar ikasterakoan bear izan ebana be.

Adimena jakitez ta biotza onoinenez jantzirik, 1888'ko maiatzaren 26'an mezakotu zan, garai atan Gazteiz-barrutiko gotzain zan Mariano Gómez jau-naren eskutik Apaizkuntza sakramentua arturik. Gortiz atseginkor yakon Urkiola gainean, Antonio Alonvari eskiñiriko eliz apaiñean emon eban lenengo meza. Ondoren, Karrantza'n egin eban urte bete ez arima-zain; gero Zumaia'ko karmeldar mojen Kastetxeke kapellau izentau eben nagusiak, eta an-ze bizi izan zan, inora be aldatu barik, ogetamar 1920'ko urtean. 1920'ko urtarrillaren 14'an il zan.

Langille itzala zan, liburuak idazten ezezik, au-tore ta izlari lez. Maite ebazan Zumaia'ko arran-tzale ta baserritarrak, zar ta gazte, gizon eta em-aume. Zenbat biotz-zaurituri ezarri ete eutson poz-antzurukia? Zenbat txiro ta beartsu ez zituan la-gundu bere ziskuko txanpenez? Apala zan, zintzoa, arrana; goi-maitasunez gainezka eukon biotza, eta lanena zan bere etxea, ta ez eukan ezer eskuzabal alako; ez-eukia zan ez-eukien artean.

Bere erritarren soin-sendotasuna eder yakon irren, bera makal ta aula genduan umetatik; «odol-zurbilla», Azkue'k diñoanez. Alan eta guzti be, eze-teretik indarra aterata lez, Euskalerra osoan ibilli zan ara ta ona, bertoko oiturak, alkar-izketak, esake-za politikak ikasi ta jasoten; idatzi ebazan nobela ta irakurgaietarako ezpala nunbait. Izlari ona zan, baiña gitxitan bakarrik urten eban. Zumaia'tik egi-tzian ori beteten. Apaiz lez, bere errian, Antigua'ko Amaren basilizan itz egin eban lenengoz; gero, Zestua'n 1898'garrenean, angok Euskal-jaietan; baita bein Beasain'en aizetan, beste bein Bilbao'ko «Cam-pos Eliseos» antzokian, eta abar. Ba-ditu laubost itzaldi egoki eratuak.

Baiña euskeralari lez dogu, batez be, ezagun. Euskaldun Cervantes, Pereda, René Bazin ta ola-

ko izenak emon izan dautsiez. Iru nobela idatzi ebazan: *Auñemendi'ko Lorea*, *Kresala* ta *Garoa*. Gaur zabal dabillen eritxiz, iru liburu oneitako nor-kiak nobelalaririk onenak asmaautakoen pareko dira. Laugarren bat, NI TA NI, erdi idatzita eukan; atalño bi argitaratu ebazan «Euskal-Esna-lea»-n; Oñatz ta Ganboa'tarren arteko liskar ta burrukak erabiltzan gai. Orrez gainera, lenengo «Euskal-Erria»-n eta gero «Euskalzale» ta «Ibaizabal»-en, ainbat lantxo argitara emon ebazan, asko beintzat Azkue zanak zirikatuta idatzitakoak. Erroma'ra joan-etorri bat egin eban, 1892'garren urteruntz, eta txango atako zertzelada ta zeaztasun guztiak oso ederto damoskuz *Joan-etorri bat Erroma'ra* deritxon lan luzean. Aurreratxoago, Aita Larra-mendi'ren eun urte-burua zala-ta, Donosti'ko Lore-Jokuak euskaltzale andi orren bizitza ta lanari buruzko idatzi luzea saritu eutsoen; geroago, 1895'an, *Iziar'ko Amaren kondaira laburtxoa* be era berean aintzat artu ta saritu eutsoen.

Euskal arloko lan eder guztiokaitik goi-goi ebillen Agirre zanaren izena; orduko euskaltzalerik bikaiñenak, J. Urkixo, K. Etxegarai, Kanpion, Muxika anaiak, J. K. Gerra, Eleizalde, Olabide, Azkue, P. Lhande ta gainerakoak, oso adiskide zituan. Eta, 1918'an, Eusko-Ikaskuntzak, Espaiñi'ko errege Alfonso XIII'garrena buru zalarik, Oñati'ko Batzar nagusia ospatu ebanean, bera izan zan euskal-gaietan aurrelari. Azkue'k onela: «Batzar aztu-ezin artan, euskaltzaleok bera buru izan genuen». Antxe sortu zan Euskaltzaindia, eta Azkue egin eben arren bazkun ortako buru, Agirre be, bazkide guztien eritxiz, euskaltzain aukeratua izan zan. Andik urte bira il zan, 1920'an; eta, gizon andi aren gomutapena galdu ez eiten antza, andik ille bi ta erdi baiño lenago, jorraillaren 5'an, bere omenez il-jai barrenkoi bat ospatu zan Donostia'n, Azkue'k, K. Etxegarai'k eta Aita P. Lhande'k itz egiñik.

* * *

Olerkari zanez, eztoigu ezagun Agirre. Alan be, zenbat poesi dagoan bere bertso-sail ta itz-lauzko liburuetan! Bertso berri totonak baiño mailla batzuk gorago agertu ziran orduko Aserre-Beitia ta Agirre, ta orixegaitik bear bada ondarrutarra ezta bear giñoan ezagutua. Bere iru nobelak, baiña, itz-neurtuetan egon ez arren, olerki eder dira, *Kresala* ta *Garoa* berariz. Entzun K. Etxegarai'ri: «*Kresala*'ren eta *Garoa*'ren irakurleak, maiz aurkitu dituzte olerki ederrak irakurgai gogoangarri oien errietan. *Kitolis*, neretzako beintzat, olerki edertrenetakoa da. Itzen azalean ez dago olerkitasuna: azalpean dago. Azala egoki landua izan arren, barrenen sugarrrik ez badago, alperrikako lana da, an olerki billa ibiltzea» (*Agirre, Olerkari*, Donosti, 1920). Biotzari itz-eragiten eutson Agirre'k, eta olerkari zan. Olerki bat begi aurrean dogunean, buruak baiño obeto, biotzak esaten ei dausku: «Au olerki da, itzak onela edo arela josirik egon arren; onek, bere mamiñean, bere erraietan daroa edertasuna».

Ogei bat olerki ditu guztira. Amazortzi agertzen dira nik oraintsu, aren idazlan banakazkoakaz osotuta, argitaldu dodan *Ondarrak* liburuan. Olerki legeak ba-ekizan eta etzitun albora itxi; neurritz ta puntuz akatsik bage egiñak dagoz. Ba-ekian ederra ulertzen, baita berak nabaitzen eban lez besteai adierazten be. Arrasate'n saria irabazi eban *Agure-kanta* deritxona, adibidez, idurikizun txanbelin eta sentipen gozoz guriturik dago. Agure zarrak kantuan diardu, gaztetako lerdentasun ta indarrak gogoratuaz.

«Gaur, indar gabe besuak eta begiak dauzkat lausuak, burua zuri, belarriak gor, eta txit sorrak pausuak, eta txit sorrak pausuak»

diño negar-anpulua begietatik dariola. Ezpanetan
itz gozoa ta biotzean garra ebazan Txomin Agi-
rre'k bere bertso sentikorrak idazteran. Gizon ur-
tetsuaren jarduna amaitzean, onela darrai berak:

«Kantari zarra ixildutzean,
oso samurrik nenguan;
kantua daukat gaurgaiño ere
ementxen, belarronduan,
damorrigarri, bigun, tristea,
negargarrizko soiñuan...
Etzait aztuko beinguan!»

Oneititik batzuk ats andiz eginda dagoz, Naikua
juat, *Itxas-ertzian*, *Zer pakea!*, *Ai balekite!*, *Ger-
nika'ri ta Itxas-aldian*, esaterako. Nobia Salzedo'ri,
bere lenengo jaiotz-eunkia zala-ta, opaetsian onela
diñotsa Arrese-Beitia'ri:

«Galdu badira gure foruak
ta galdu ekandu zarrak,
ausi badeutsez gure Aritzari
maite genduzan adarrak,
zer dogu egiten, adiskidia,
zetan gagoz bizkaitarrak?
Zer dabe egiten euskaldun seme
argitsu eta azkarrak?»

Esan dogunez, maite eban Euskalerrria, eta oni
eskiñi eutson, an 1890'garrenean ondu eban *Ipuia*
deritxon olerkia; argitara emonikoetatik lenena zan.
Irakur daigun osorik:

«Mendi altutik errekatxo bat
garbi-garbiya zetorren:
t'egun batian euskaldun zar bat
bere onduan zegoen
(agure zarrak, lenagokuak
mendi-zaleak ziraden)

Euskal-erriko samintasunak
ta naigabeak pensatzen.

Miñaren miñak orra nun dioz
malko eder bi atera,
eta, egiñik beren bidia
arpegi xarretik bera
erori ziran, igarri gabe,
errekaxo leiarrera
non, beti beruntz, etorri ziran
ibai txit zabal batera.

Ibai zabala, uri ondolik
zetorren beti zikiña,
eta, batere jaramon gabe
besteren negar samiña,
errekaxoko malkozko urak
garbi ziranak antziña,
loitu zituan. Ala biar zan
egiteko bere diña!

Ibai zabalak bezela, askok
loitzen ditu ur garbiak,
naiz birtutea bezin leiarrak,
naiz izan malko iturriak.
Askorentzako mundu onetan,
Euskal-erriko semiak,
zertzuk dirade malko batzuek?
Zertarako birtutiak?»

Agirre, beraz, olerkari dogu. Sua dan tokitik
kea, esan oi da. Agirre'ren poesia sua da, berak
biotzean sua eroialako. Etxegarai'k zuzenki diño-
anez, etzan txinpartaka agertzen, etzan tximistaz
apaindurikoa; aren berotasuna apalagoa genduan,
baiña bero gozoa zan; gaur be aren olerkiak, ira-
kurriaz, berotasun biguna sartu daroasku biotzean.

Eta, azkenez, bapere neke barik idazten eban. «Txikitatik, mutil koxkorrak giñanetik, elkarren adiskide giñan», diñosku K. Extegarai'k. Ortik, ondo ezagutzen zituan zizki-mizki guztiak, baita idazlanekoak be. Olerki-saioeri buruz onela mintzatzeko yaku: «Agirre'ren itzak ondo neurtuak zeuden, ala etortzen zitzaizkiolako; ez bera bana-banaka, auzen eta beste ori an ipiñiaz, nekatzen zalako. Ori bai: ederki neurturik etortzen ez bazaizkion, etziztuen idatziko. Zerbait esan bear etzuenean, etzaneurtitzak asmatzen nekatuko. Iturritik ura sortzen dan antzera nai zuen Agirre'k olerkia jaiotzea. Orretarako, izkuntza ongi jakin bear da. Ongi ez da kiena, sarritan ibilliko da, zerbait esan nai, zerbait esan bearrean lertzeko zorion, eta nola esan eziñ asmaturik. Gure adiskideari, etziztaion ori gertatzen».

Idazle ta olerkari erne onegan ba-dogu, ba, zer ikasia.

II

BERBIZKUNDE M. AZKUE

Lekeitio'n jaio zan 1864'ko dagonillaren 5'an. Jainkoak —berak diñoanez— itxas ondoan, arkaitz gainean atondu eutson seaska. Umetatik olatu-burundara ikaragarriak durundi egin eutson belarrietan, itxas-aize mardulak gogortu eutsozan biriak. Kresal-aizea ezta txarra, agiri danez, gizonari bizi luzatu ta lanerako griña ezarteko. Azkue beintzat, luzaroan bizi izanik, egundo aspertu bako langillea izan yakun euskera arloan.

Bere aita be etzan izan edonor. Eusebio Maria, lekeitiar zintzo, bere erriko ta Mundaka'ko Nautika-eskoletako irakasle zala, ba-eban arek aldi pizkat

poesiaren ezitia xurgatu ta miazkatzeko. Ama mundakarra eban, Mari Karmen Aberasturi, Eusebio Mri'ren bigarren emaztea. Aita ta ama, biak ebazan euskaltzale jator; aita olerki-liburu «Parnasorako bidea» itxi euskun; amak iñok baiño geiago lagundu eutson semeari *Iztegi* andia ta batez be *Euskalerrriaren Yakintza* osotzen; lau liburu mardul onein buruan lankide artean amaren izena jarten dau, «nire lankide guztien erregiñari zor dautsadazan eskerrak onetaraxe izan ezik, egoki ezin erakutsi dagikedaz» esanik.

Egur onetik ezipal ona. Aita-ama on jakitunen semeak be edu ortakoa izan bear. Lekeitio'n ikasi ebazan Nautika gauzak eta batxillerrari dagokiozanak. Gero, barren-deiari erantzunik, Gazteiz'ko Apaiz-Ikastetxean osotu ebazan abade-ikasketak; Salamanka'n, ostera, Teologi ta Idazti Deunetako maixukuntza.

Ikasteak amaitu-ala, biotz-muiñean ekarren griñari amor egiñik, euskal lanean asi zan. Erkiaga'k ederto: «Bere aitaren paperetan eta amaren berbeta gozoan izan eban, sekulada osoan, bere kutun izango zan izketearen ernamiña. Il arteraiño guztian, euskeraren alde lan eta lan ekingo eutsan abade andi ta asperreziñak». Eta Orixe'k: «Azkue jauna gizon mardula zan gorputzez, apaiz erdua, biotz oneko gizona. Zortzi urtez egunero jardunarekin zerbait ezagutu nula iduri zaida. Langille gogorra zan. Euskeraz ari geranok Azkue jaunari zor diogu geienik, eta euskerak ere bai: ark atera zun gaixoa bere zarpilletatik eta soiñeko apaiñez jantzirik ikusi. Gure oroimenetik ezta beiñere galduko aren izena, euskera bizi daño».

Bein Bizkai'ko Aldundiak euskera erakusteko aulki bat edegi nai izan eban Bilbao'n. Iru gizon, «iru euskaldun argi, garbi, azkar eta langille» saiatu ziran toki ortarako: Azkue, Sabino Arana ta Mikel Unamuno. Nor geiagoka orretan, Azkue aurrelari. Euskal irakasle izan zan, ba, urte luzeetan:

gero «Kirikiño» itxi eban ordezkoztat. Ortan ziar-
duala asi eban, batez be, bere lan ikaragarria. Or-
duan berak sortu ta zabaldu ebazan «Euskalzale»
(1897-1899) ta «Ibaizabal» (1902-1903) aldizkari lan
ederrez beteak; orduan idatzi ta argitara emon
ebazan *Bein da Betiko* ta *Trirristadak*, eta beste
ainbat idazki oso bizi ta jakingarri; orduantxe
bere *Euskal-izkindea* (1891) ta *Jesus'en Biotzaren*
illa; 1905'garrenean argitara emon arren, ordutik
erabilen ernamin bere *Iztegia*, euskal erdel fran-
tses Iztegi ederra.

Iztegi au dala-ta, begoz emen goralpen batzuk.
Azkue'na dogu, Justo Garate'k diñoanez, «sekulako
euskal erdel frantzes Iztegi ederra, bi gutun andi-
tan eta beste iztegi danak atzian utzi dituna; Ber-
lin'en, Paris'en, London'en, eta liburutegi andi gu-
zietan aurkitzen zan eta izketatzale guzien euskal
lanetan, aita Azkue'ren Iztegia aipatzen da». Orixe'k
onela: «Iztegi aundia gizon sail batek egiteko lana
zan, A. Olabide zanak ziona; baña bakarrak egiña,
Jainkoak dakin aiña nekerekin. Berrogei ta amar
urtez beitik euskeraz idatzi dugunok, arenean ikasi
dugu, ta Iztegi ortara jotzen dugu argitasun-zur».
Eta L. Mitxelena'k: «Orain eun urte zorionean
jaio zitzaigun Azkue'k lan miragarria egin zuen sail
askotan. Eta, alaz ere, zerbait aukeratu bear ba-
gendu orien artean, bere iztegi andia litzake, nere-
ztat beintzat, arrigarriena eta bikaiñena. Are arri-
garriagoa eta bikaiñagoa idurituko zaigu, gogoan
badugu 1905-1906'ean atera zuela argitara, berro-
geiren bat urte zituelarik, eta ez, bear zukean be-
zala, bere bizitza luzearen azken-buruan».

Onen urrengo bere lanik ederrenetariko bat
Morfologia dogu, euskal itzen eite apartekoa. «Le-
nengoaren aizpa gazte bezala da —diño Orixe'k—,
ta ori ere, zer-ikasi dabillan euskaldunak ez du
eskutik utziko luzaroan». Orrez gain, «Euskalerria-
ren Yakintza», ainbat ipuin, elezar, siñeskeri, oi-
tura ta solasez gaiñezka, «Gipuzkera osotua», ar-

tikulu asko «Euskera» aldizkarian, «Ardi galdua»,
«Latsibi» ta «Ortzuri» nobelak, gramatika ta iztegi
txikiak, Elizarako liburuak, itzaldi ederrak, eta be-
rein ari ta oni buruzko idaztiak itxi euskuzan.

Azkue'k ba-eban beste griña bat be: musika-
zale amorratua genduan. Gaztetan ondu ebazan ain-
bat kantu, eliz-oiu ta zarzuel. Zarzuela artean eder-
to egiñak ditu «Eguzkia nora», «Vizcaytik Biz-
kaira», «Txinboak» eta «Sasi-eskola». Gero Ale-
mani'n ikasi eban, batez be armonia, ta Orixe'k
diñoskunez, Wagner'ek «burutik nasiazi zion»; on-
doren egin zituan «Urlo» ta «Ortzuri» operak bein-
tzat eztabe aurretikoak lako euskal giarrik. Alan
be, ereslari bikaiña genduan. Berari eskerrak, gai-
ñera, ainbat euskal kantu il-agiñean egozanak ez
yakuz onezkero ilgo; bere *Kantutegia*, 2.400 erriko
melodi edo doiñuz osotua bikaiñaren bikaiñez ede-
rretsi eziña dogu. Bai, alderdi ontatik be Azkue'k
eta Aita Donosti'k, mesede ikaragarria egin eutsoen
Euskalerriri. «Euskalerrri osoan ibilli izan zan
—diño E. Erkiaga'k Azkue'tzaz— baterik bestera,
ta gora ta beera berba zarrak, esaerak eta kantak
batzen. Millatik gora kanta batu eta paperetan
jarririk daukaz. Aren edu ta neurriko lanik eztau
beste euskaldunek egin. Bego, ba, arro, Lekeitio,
bere seme andi ta gailen onezaz!»

Eta olerkari be ba ete genduan Azkue? Baita.
Gitxi-asko guztiok gara ederzale, bai barruan da-
roaguna agertzeko, bai izadikoa ta erti-lanetakoa
jasoteko. Ederra geienik kantuz ta itzez adierazten
dogu. Azkue, ederzale zalako ibilli yakun euskal lur
osoan abesti zar billa, ta itzez ainbat lan eder bu-
ruru zituan idurimenez jantziak be. Ba-ekian eder-
tasuna zelan aitzen emon musikaz ta solasez, orta-
rako asti andirik izan ez eban arren: bere bizitza
luzean, lenengo urtectan izan ezik, euskal-itx ara-

zoan ibillia dogu. Eta ez eutsen onek bear ber-
teko astirik itxi ele ederrari berea emoteko. Berak
diñosku Iztegi andiaren sarreran gogoz ta griñaz
kontrako lanetan ebillela, baiña axe zan —iztegi-
gramatika, kantu-billatze ta abar— garai atan eua-
keraren onerako egin zeikean lanik beiñena.

Bertsoz ez euskun askorik idatzi, baiña bere oler-
kari arimea naikoa agertzeko beste bai. Kantute-
giko erri-abestiak ahapaldi asko dabez berak erri-
tsiak, orreitan aurkitzen zitun utsune ta akatsak
borobiltzearren ipiñiak antza. Beste lantxoetan be,
iduri-lan politak ditu. Bere *Bein da Betiko* nobela-
tik artua dogu gaur ain zabal dabillen *Basa-txoritxu*
abesti gozoa. Egilleak, amak kuma ertzean lez,
biotz osoa jarri eban umetxoari gauzarik ederrenak
abesteko. Bego, emen, osorik.

«Basa-txoritxu mustur luzeak
ez igan zerura billa,
aingerutxurik bear ezkerro
orra or nire mutilla.

Bere musua edurra da ta
sua biotza ta ezpanak:
berton urturik biziko dira
nire bularra ta zanak.

Ai! Nok leukezan urrezko orratza,
urre-miesa ta aria,
urrez asi eta amaituteko
ume onentzat jantzia.

Larrosatxuak bost orri daukaz,
kabeliñeak amabi;
gure umea gura dabenak
eskatu beren amari.

Neure leioko inzirituak
illun-abarran begiak,
enc umea lo datzanarte
lo egin bei eguzkiak.

Argi goiztarra betor gurera,
betoz izartxu gautarrak;
ezpeiz lotsatu or ikusiaz
buruak illun ta zaarrak.

Begi bik ikuskizun bat dauke,
belarri biak sentzun bat,
usain bakarra sur-zulo biak,
zeru-lurak bat Jaubetzat.

Batu beiz orain beti-betiko
nire biotza ta irea,
seme maitea, maite izan daigun
ire ta nire Egillea.

Baso-txoritxu mustur luzeak
ez igan zerura billa,
aingerutxurik bear ezkerro
orra or nire mutilla.»

Azal ta mamin, lenagoko euskal arto-erregutada
baizen guria. Euskal aire ta bizitasuna ezin leio
ezelan be ukatu.

Bere *Prontuario de la Lengua Vasca*'n argitaldu
ebazan beste bi, oso ederto landuak, *Errimiña* ta
Ilargia; neure *Milla Olerki eder* bilduman datoz
biak, 315'garren orrialdean. *Errimiña* deritxonak
zazpi ahapaldi ditu, zortziko nagusitan, eta egilleak
bere erritik asao, Kolonia'n, aurkitzen zala ondua,
1908'ko garagarrillean. Urruti atan, 44 urte ebaza-
larik, ama etorkion gogora. Azken apaldian onela
diño:

«Aur nintzanean nuen bezela,
gabero lotarakoan
oraiño ere amets gozotan
ama det nere gogoan.
Aur nintzanean nuen bezela,
seaskondoan gabero,
ama maiteak oiú egin bezait:
«u-au-atxoa lo ta lo».

Illargia deritxonak amabi ahapaldi ditu, zortziko nagusitan au be. 1898'ko urrillean egiña da, ta bere adiskide P. Broussain ta A. Constantin'i eskeiñitakoa. Egilleak, adiskide biok lagun, txango bat egin eban garai atan Atharratze'tik Zuberoa'ko Gara-zi'ra; auzotegi au ango jagiena da nunbait. Augai-tik dator lenengo ahapaldian:

«Atharratze'ko Paradisutik
odei-seaskara urbil
bi nere erritar bidaiderekin
ninjoala orain bi il,
Añemendi'ren tuntur gainetik
agertu zenidan ixil:
Ezpuru-sagar bat baizen txuri,
ziza bezela biribil.»

Gauzak ikusi ta adieraztean ba-^{du} Azkue'k gure Orixe zanaren antza. Euskaldun gogo bi, arima bi kideko.

Begoña'ko Ama koroatzean, bederatzi egun iraun eben elizkizun ta jaietan, abesti, oiulari, orkestralari ta abar, musika-arazo guztia Azkue'ren lepo egon zan. Ordurako egin zitun beste poesi bi, Begoña'ko Andra Maria'ri izenburu dabenak. Jai ostean Aristides Artiñano'k osoturiko *Coronación Canónica de Nuestra Señora de Begoña* (Bilbao, 1900) liburuan, 29'garren orrialdean datoz biak. Batak amar ahapaldi daukaz ta besteak amabi, musikaz kantetako egiñak. 1900'ko iraillaren 8'an, Andra Maria'

ren buruntzialdi-egunean, goizeko meza nasitan, B. Zapiñain'en musikeaz bere goratzarrea abestu zan. Ona lenengo ahapaldi biak:

«Jetsi zaiteze or goitik gugana
ederto apaiñik aingeruak;
geutar egiñik, Maria'rentzat
alkartu daiguzan oiúak.

Nok ustú deusue gaur zenua?
Zeiñek zerutu deusku lurra?
Zeu zaugu zerutzailla, Maria:
zeuretzat gure esker-agurra.»

Bigarrenaren lotots bat:

«Itsasoa ibaiturik
lotsor darabiltzu,
odei balzak indarga,
gaisoak indartsu;
zure oinpean dakustaz,
Ama, goibeturik
ezten barik sugea,
Balbea il eziñik.»

Aurreratu dogunez, opera ta antzirudi txikietan olerkitxo asko sartu ebazan. Ona bat, arin laban-koia, *Aitaren bildur* deritxon aur-agerkaulitik artua:

«Dirurik, zuririk ez beltzikan
Joxantonio'k etzeukan;
zurrutño bat edateko,
uyol-egun batean,
errekara joan zan,
keskallutako ustean:
errota txikiak klin-klan.

Errekan zegola, keskallurik
Joxantonio'k alerik
ezin atxituz, gogaitu
zuen bizi-bizirik;
itzuli zan uts-utsik,
loben-zuriko gaberik;
sabel jan-gabeak klik-klik.»

«Euskalzale» aldizkarian ba-ditu beste lau bat,
Mirua ta Amillotxa alegi polita, «Jesus'en Biotzari
neurtitzak», esate baterako. *Txindorria ta Gerri-
ka'ko Zugatza* «Vizcaytik Bizkaira» deritxon eresi-
erautsikoa be oso egoki biribildua. Baita Beetho-
ven'en Bederatzigarren Sinfoniko Schiller doixtar
olerkariaren *An die Freude* ereserkia bertsoetan ta
Wagner'en Parsifal'eko Graal'en Eskintza itz lauz,
berak euskeratu ebazan Bilbao'ko *Euskaria* Abes-
batzak 1912'garrenean Bartzelona'n emon zituan
kontziertuetarako (Ikus *Euzkadi* aldizkaria, 1912,
166-167 orrialdeetan). Eta, azkenez, 1909'garrenean
RIEV'en (III, 158 orr.) argitaratu eutsoena. Ezta
izen-bururik. Onela diño:

«Hispalis zarra, Toledo, Burgos,
Escorial ta Granada:
Españiaren ots ta agomena
betikotu bear bada,
motel ditugu orren izenak,
dantzugun beste dunbada.

Milla lurzale tarraz bijoaz
eitzak iruta ikustera:
mendi zuztarrez jaunetxeturik
ta odeiz estalirik berera
dakuskigunok, denok daukate
esku ilkorren tankera.

Gizondasunak zuen biotza,
begia gizamirarik
ezin asetu bizi zeranok,
beti geiagoren bearrik,
Ebro-gaiñeko arritxo batek
ase zaitzan, zatoz poz-pozik.

Arrizko azaldun irudi orrek
beratx biguin du biotza,
Ama baten samurtasuna
doe tantoka biñotsa:
tanto orrez bizi da ilkorgaturik
gure siñiste-bizitza.

○ eskerzale maite ta laztan,
metarri-gaiñeko Ama:
beste erri batek eskertsuago
balu zure oiñaren Jauna,
Loreto-mendin etxezai dagon
aingeru batek berama.»

Erraldoi antzeko gizon kementsu onen lan bi-
kaiñak ez ditugu guk egundo, bear bestean, txa-
lotu ta eskertuko. Alan be, Altube zanak iñoana
esan daigun: «Jaungoikoak saritu beza, zeru al-
tuetan, Euskalerriri ainbeste mesede egin dion,
eta guk mesede ori bear bezela sekula eskertuko
eztiogun Azkue jaun beneragarri ta maitea!»

III

MIKEL UNAMUNO

Bilbotar dogu Unamuno, gaur 16'garren zenba-
kia daroan Erronda kalean, 1864'ko iraillaren 29'an
jaiou; beraz, gure Mikel Goi-aingeru andiaren

egunean agertu yakun mundura. Umetan ikusi eban karlistak zelan (1874) bere uria inguratu ta su-tanpaka inarrosi eben. Berton, batxiller ikas-ketak egin ondoren, Madrid'era aldatu zan 1880'garrenean, ikas-arlo nagusiak an osoturik. Arrezkero, leku askotarako saiatu zan irakas-aulki baten billa, eta azkenez, Salmanka'n jaritxi eban, 1891'an, Menéndez y Pelayo'ren eta Juan Valera'ren babes-pean, ango Ikastetxe nagusian griego erakustea. Gero, ia bizitza osoan, antxe bizi izan zan, urte luzetan Ikastetxe atako buru izanik. 1924'an Primo de Rivera'k Fuerteventura'ra baztertu eban; geroago, andik Prantzi'ra aldaturik, Paris'en eta En-daiia'n egon zan. Erkal-aldian (1931 - IV - 14), Salamanka'ra biurturik, ango Ikastetxeko burutza artu eban barrero: 1936'ko lotazillaren 31'an il zan.

Andik nai emendik begiratu, gizon andia dogu Unamuno: jakinzale, olerkari, antzerki-egille, sai-zale, nobelari... Gai guzti oneik ikutu zituan, eta sakonkiro atan be. Bala-bala dabil gaur bere izena, garai atako beste inorenik ez bestean. Ba-ebazan —eta nok ez?— bere akatsak, erlejiño gauzetan batez be. Txikitatik oso barren-zale ta mistikara emona zan; alan be, fedea galdu eban ezker, leza-zulo andia geratu yakun barruan: negarrez ta Jainkoari deika emon eban gero bizitza guztia, utsune ori zelanbait bete naian. Arek beintzat negar ta oiu egian bere zoritxarraren atzapar artean. Ez ete eban ezer jaritxi?

Gizaki erne onek errazoia ta bizitza ezin buztar-turik igaro ebazan bere egunak; errazoiari ta bizi-tzeari bestelako oiñarri batzuk ipiñi nairik, mesede ikaragarria egin eutson munduari, jakintza zelaiian batez be. Bere garaian aitatu be ez eben gura erle-jiño-arazorik idazle ta pilosopu andien artean: au ez egokion, antza, egiazko jakinzale bati. Unamu-no'k ausi ebazan loki ta kate sendo oneik: bere idatzi guztietan Jaungoikoa darabil kezka-gai; jakin-min bizia biztu-azo eban ainbat gaietan, Jainkoaren

begipetik urten bage beti. Filosopu zan, munduko ta norbere barruko gauzen zergaitia susterrez jakin naita bizi zana. Asko idatzi eban, eta bere liburu guztietan jakin gurearen zimikoa, urduritasun baten askatu-naia, ezilkortasunaren griña, Jaungoiko bea-rra, egarri ase-eziña adierazten dau bizi-bizi. Auxe darabil aspertu barik, borbor, ke-jario, larritasun anditan.

Berrogei urteko zala asi zan olerki idazten, eta bere-bere bidez asi be: etzan sartu orduko moder-nisten atabal-dantzan; 89 garaikoa dogu, urri, kla-siku, zur. Aren poesi azala latza dozu geienik, mu-sika gitxikoa; ortarako gai zan arren, ez eban azal-keririk nai. Barne-muiña nai eban pentsamentuz ta biotz-ikaraz ondo betea, aberats eta jori. Una-muno'k auxe nai dau, olerkiak ondutean batez be: pentsamentu batek, naiz barren-zauskada batek, naiz munduko ikuskizun batek sortuazotako liriku-dardara bertso-itxuran ezilkortu. Eztau beste as-morik, eta nire ustez, jaritxi eban xede ori burutu ebazan olerki-lan bikaiñetan.

Bere poesi liburuetatik ona batzuk: «Poesías» (1907), «Rosario de sonetos líricos» (1911), «El Cristo de Velázquez» (1920), bere obeena nunbait; «Andanzas y visiones españolas»-en azkenean datozenak (1922), «Rimas de dentro» (1923), «Teresa» (1924), «De Fuerteventura a París» (1925), «Romancero del destierro» (1928), eta argitaratu bage itxi eban «Cancionero». 1928'ko otsaillaren 26'an asi zan Kantutegi au idazten, eta egunero, bederatzirte luzetan, jarduna dogu idatzi ta idatzi; 1936'ko lotazillaren 28'koa dau azkena, il zan baiño iru egun aurretik idatzia. «Cancionero» au Buenos Aires'ko Losada etxe argitaldaria irarri eban 1953'an; guztiz 486 orrialde ditu, ta 1.755 olerki, labur-rak geienak.

Unamuno'ren bertso-baso tringuan zear bular-tsuen bide dagian lera, larritasuna dogu. Biotz is-kitsu ase bagetik urtendako larritasuna, jakin-min

dan adimen zorrotzetik sorturiko axkura bizia. Larritasun au, diñoenez, batzuetan berezkoa dau, beste batzuetan ber-berak ortara biurtua. Irakur onako Jainkoaren eskuetan deritxon au:

«Zuk, Jauna, zeure mosuz, arnasa kentzen dauskun eriotz-mosuz gu laztantzean, atxillotua yaku biotza lotzen zeure eskumearen estutzepean.

Eta zure ezkerrean, pixuz jausia, gelditzen dan buruak —lo betikoa— oraindik indar dagi Zu atzi-naita aituz doakiola bere un osoa.

Zeure bular gain jarten dozu biotza, ta, griñazko itxas biur nastutik urrin, seaska andia lez an dau atsedena;

adimenak artean —ames errota—, oldozkun-estalgien astunetik azke, lo dagi euzkitan zure esku indartsupe.»

Larri ta kezka askoren artean ba-eban beste bat be: erri-maitasuna. Euskaldunok buru gogorrak ei gara, eta Unamuno'k be iñoiz bota zituan bereak eta bi gure gauzen aurka, gure izkuntz bereziaren aurka batez be. Baiña maite eba euskal lurra zan eta bertoko gauza ta gizonak; odolak onantza saktzen eutson, eta euskal mendietara igonik, sarti asetu zitun bere biriak eta zentzunak areitatik ikusten diran bazter eder, zugatz ostotsu, baserri zuri, ibar zabal, tximini-ke ta lantegietako lurrun-adaska zoragarritz.

Bein baten, lagun zar bategaz topo egin eban Bilbao'ko kale batean. Aren pozkaria! Biotz-ikara gozoz agertzen yaku *Bilbao* deritxon poesi ontan:

«Gaur gozartu zaitut, Bilbao. Goizetik urilagun batekin txil ein dot bidean, neu lez zure seme bat, bere zorionez. Ibaizabal'en argia aren begietan eta gogoa bere izketa doiñuan, zaintsu ta urduri bere naro gozatsuan, zure kide ta antzeko, ene uri maite.

Aren itz-doiñua zan, nire gogoa aratz zanean, itz garbiak artara sarturik oneik dardar ein eben aide durduria. Zu arnas zindudazan, Bilbao, ta biak, ni ta zure beste semea, anai somatu giñan oro bilbotar giroz murgilduak. Neure eskuetan euki neban luzaroan aren esku ardura bagarik itxia, eta agur egitean, neuretzat, niñoan: gizaseme guztiok anai gara ziur, Bilbao andiago bat mundu guztia.»

Sendi-zale zan Unamuno, pamiliko bizitza oso atsegin yakona. Eta bere eritxiz, idazleak ezer baiño geiago pamiliko bakea bear dau. Bizikera garbia, beste barik be, poema ederra izan daitekela diño bere eskutzitetan. Gernikarra eban lau seme-alaba emon eutsozan emaztea. Euskaldun ona lez, fede andikoa, erlejiñoko gauzai batez be begirune ta itzalla gortezen ekiana Mikel'ek iñoiz *bakar-auturen* bat ba'egian Jainkoaz edo erlejiño-gaietzaz, emazteak ebagiten ei eutson, esanaz: «Itxi egiozu Jainkoari bakean, daukazun buru ori Berak egiña dozu, ba, ta eztot uste txarto daukazunik». Senarrak burua makurtu oi eban, eta aurrera. Olerki txukun asko dauz Unamuno'k sendiko bizitzari eskiñiak. Ona bat, *Neure len-illoba* deritxona:

«Illargi erdia seiaska bat da, ta nok eraingo al dautso berari?; ta illargi erdiko ume txikia, zek ete darabil ain ameslari?»

Illargi erdia seiaska bat da,
ta nok darabilke ara ta ona? ;
ta illargi erdiko aurtxo laztana,
norentzat orrela azten ete da?

Illargi erdia seiaska bat da,
astiro doakit ilbarrirantza ;
ta illargi erdiko aurtxo guria,
nok eroango ete daust goirantza? »

Unamuno'k badau Quevedo'ren antza. Biak doaz artezean gaiaren susterrera; eztabe gura oker-uneka ibilterik. Sendagillea be zuzen doakigu zaurira, ez baitau astirik alper galtzeko. Bieri yake atsegin go-gaia. Unamuno'ren olerkia ezta, iñoiz be, egal zabaldun ibai atsedentsu, osto-adar ta arriak arramastaka dakarzan ujola baiño. Era orretan diñosku esan nai dauskuna.

Idazleak olerkian egin bear ei ditu bere lenengo saioak; orrela esaten eban Menéndez y Pelayo'k. Unamuno'k bestera egin euskun, idazten ospe andia lortu ondorean egin yakun olerkari, erderaz beintzat. Euskeraz, barriz, gaztetan egin zitun lenengo olerki-saioak. Bi beiñik-bein ezagunak doguz; bata nire olerki bilduman (676 garren orrialdean) dator.

AITA ONAINDIA